busturialdeko hitza

2008-10-25

BERMEO / Kultur aniztasuna bultzatzeko jarduerak hasi dira liburutegian

Eusko Jaurlaritzaren 'Irakurri' kanpainaren baitan zenbait jarduera prestatu dituzte.

Kultura aniztasuna bultzatzeko, zenbait jarduera antolatu ditu Bermeoko liburutegiak Eusko Jaurlaritzaren 'Irakurri´ kanpainaren baitan. Atzo ekin zieten liburutegian jarduera horiei. Hain zuzen ere, haurrei bideratuta, ' orri markagailuen tailerra´ egin zuten, 17:00etatik 19:30era. Bertako arduradunek jakinarazi dutenez, monitoreek irakatsita, umeek euren izenak beste hizkuntza batzuetan idatzi dituzte markagailu horietan. Ume batzuk horretan ari diren bitartean, beste batzuk liburuak irakurtzen aritu dira, txandaka ibili behar izan dute-eta tailer horretan, esan dute.

Film bat proiektatuko dute, gaur, liburutegian

Gaur, bestalde, 12:00etan, umeentzako film bat emango dutela jakinarazi dute. Hain zuzen ere, 30 minutu iraungo dituen 'Populazioa´ euskarazko filma ikusteko aukera izango dute bertaratzen diren haurrek.

Datorren hilean, azaroaren 6an, Jon Arretxeren emanaldi bat izango da. 'Mundua zazpi koloretan´ diaporamaren aurkezpena egingo du, 19:00etan hasita. Aurkezpena 50 minutukoa izango dela eta ondoren galderentzako tarte bat izango dela azaldu dute liburutegiko arduradunek.

Bi egun geroago, eta kanpaina honen baitan, ipuin kontalari bat ekarriko dute. Azaroaren 8an izango da. 12:00etan hasiko da eta ordubete inguru iraungo duela aurreikusi dute. Kontatuko dituen ipuinak kultur aniztasunari buruzkoak izango direla adierazi dute liburutegitik.

Bestalde, literatur lehiaketa bat ere antolatu du Eusko Jaurlaritzak, 'Patua zure eskuetan´ lehiaketa, hain zuzen ere.

Ipuina osatu behar

Txapelketa hori 12 eta 16 urte arteko gaztetxoei zuzenduta dago. Azaldu dutenez, Eusko Jaurlaritzaren webgunean idazle batek ipuin baten hasiera eta korapiloa idatziko ditu eta ikasleek ipuin horren amaiera asmatu eta idatzi beharko dute bertan.

Lehiaketa horretan bi kategoria desberdin izango direla zehaztu dute liburutegiko arduradunek. Hain zuzen ere, banakakoa eta taldekoa, adierazi dute, hau da, ikasle batek banaka edota taldean parte har dezake lehiaketan, gehituta.

Jarduerak

Atzo. Haurrentzako 'orri markagailuen tailerra´. Euren izenak beste hizkuntza batean idazten ere irakatsi zieten.
Gaur. Umeentzako 'Populazioa´ euskarazko filma.
Azaroak 6. 'Mundua zazpi koloretan´ diapositiben bidezko emanaldia aurkeztuko du Jon Arretxe idazleak, 19:00etan.
Azaroak 8. Ipuin kontalaria izango da liburutegian, 12:00etan.
Literatur lehiaketa. 12 eta 16 urte arteko gazteek Jaurlaritzaren webgunean egingo den literatur lehiaketa batean parte hartzeko aukera izango dute. Idazle batek ipuin baten hasiera eta korapiloa idatziko ditu eta haurrek amaiera eman beharko diote.